# PLAN IZARPENSION LAN RENTA

## 2024KO BIGARREN SEIHILEKO TXOSTENA

Hauxe da 2024an atera daitekeen ondorio nagusietako bat: munduko ziklo ekonomikoa espero baino hobeto joan da (ez da lurreratze leuna gertatu), eta inflazioa moteldu egin da, aurreikusitakoarekin bat, nahiz eta uste baino apur bat beranduago, udaberriaren amaieran hasi baitzen jaisten prezioen indizeen urtetik urterako tasa. Alegia, 2023an bezala, ez dira gauzatu hazkundearen beheranzko eta inflazioaren goranzko arriskuak, duela urtebete jakinarazi zirenak. Egia da ekonomia garatuen hazkundeak desorekak dituela: Estatu Batuetan, % 2,8 inguruko hazkunde-tasak izan ziren 2024an; eurogunea, berriz, ez da % 1era iritsi -Alemaniak ez du hazkunde positiborik izan urtean, eta Frantzia eta Italia % 1 inguru hazi dira-. Espainia da potentzialaren gainetik hazi diren ekonomia bakarretakoa, 2024an % 3 inguruko BPGd-a erdietsi baitu. Prezioen arloan dago antzekotasunik gehien. Inflazio-tasak % 2 eta % 2,5 artean daude ekonomia garatu nagusietan, eta beherantz egin dute azken hilabeteetan. Tasa horiek ez dituzte banku zentralak kezkatzen, haien inflazio-helburuak baino apur bat handiagoak izan arren. Hala, urtearen bigarren erdian, arrisku-merkatuek portaera ona izaten jarraitu dute, ekonomia nagusietan interes-tasek jaitsiera gehiago izan arren.
Urtearen bigarren zatian, tasa-jaitsierak orokortu egin dira munduan. AEBn eta eurogunean, interbentzio-tasak oinarrizko 100 eta 110 puntu jaitsi dira, % 4,50era eta % 3,15era, hurrenez hurren. Horrenbestez, diruzko inbertsioen errentagarritasuna moteldu egin da, nahiz eta oraindik handia izan.
EBZk interes-tasak oinarrizko 110 puntu jaitsi baditu ere, interes-tasen kurben tarte luzeak ez dira asko aldatu azken 6 hilabeteetan. Herrialde periferikoen arrisku-primak behera egin du, ekonomia horiek Alemaniarekin alderatuta izan duten portaera hobearen ondorioz. Edonola ere, errentagarritasunak erakargarriak izan dira, % 3tik gorakoak.

# PLANAREN DATU IDENTIFIKATZAILEAK

. Izarpensión EPSV, Borondatezko Giza Aurreikuspen Erakundearen barnean dagoen ekarpen definituko enpleguko aurreikuspen plana, 139-V zenbakiarekin dago inskribatuta Eusko Jaularitzaren Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erregistroan, V-48509616 zenbakiko IFZ du eta Arrasateko (Gipuzkoako) Jose María Arizmendiarrieta pasealekua, z/g du helbidea.
. Bazkide babesle-sustatzailea, Caja Laboral Popular, Sociedad Cooperativa de Crédito
. Gordailuzaina, Caja Laboral Popular, Sociedad Cooperativa de Crédito

## PLANAREN BILAKAERA

| ALDIA | ERRENTAG. GARBIA |
|---|---|
| 2.Seihilekoa | 2,66 |
| 2024ko metatua | 3,61 |
| 2023 Urtea | 3,12 |
| Azken 3 Urteak | 1,68 |
| Azken 5 Urteak | 0,65 |

## DATU OROKORRAK

| | EGUNGO SEIHILEKOA | AURREKO SEIHILEKOA |
|---|---|---|
| Ondarea | 5.832.628,55 | 5.313.484,60 |
| Partaidetza kopurua | 503.149,71 | 470.541,64 |
| Likidazio-balioa partaidetzagatik | 11,592233 | 11,292273 |

| | EHUNEKOA | KALKULO OINARRIA |
|---|---|---|
| Administrazio gastuak | 0,15% | Ondarea |
| Bitarteko gastuak | 0,00% | Ondarea |
| Errotazio ratioa | 20,41% | Ondarea |

## MERKATU ARRISKUA

| | |
|---|---|
| Errenta Finkoaren Iraupena | 2,16 |
| Errenta Aldakorraren % | -- |

## ZORROAREN ERAKETA MERKATU BALIOAN

| BALIOAREN DESKRIBAPENA | 24/12/31ko BALORAZIOA | ZORROAREKIKO % |
|---|---|---|
| **ERRENTA FINKOA** | **5.461.833,72** | **100,00%** |
| REPO | 560.000,00 | 10,25% |
| BO. COMUNIDAD DE MADRID 1,826% 300425 | 201.701,34 | 3,69% |
| BO. COMUNIDAD DE MADRID 4,3% 260915 | 313.108,64 | 5,73% |
| BO. ESTADO ESPAÑA 1,30% 261031 | 591.793,56 | 10,84% |
| BO. ESTADO ESPAÑA 1,45% 271031 | 978.193,29 | 17,91% |
| BO. ESTADO ESPAÑA 1,85% 30072035 | 313.668,42 | 5,74% |

| BALIOAREN DESKRIBAPENA | 24/12/31ko BALORAZIOA | ZORROAREKIKO % |
|---|---|---|
| BO. ESTADO ESPAÑA 1,95% 26 0430 | 202.059,81 | 3,70% |
| BO. ESTADO ESPAÑA 1,95% 30 0730 | 487.543,70 | 8,93% |
| BO. ESTADO ESPAÑA 2,15% 25 1031 | 400.841,26 | 7,34% |
| BO. ESTADO ESPAÑA 4,65% 25 0730 | 825.591,34 | 15,12% |
| BO.JUNTA CASTILLA-LEON 1,2% 261013 | 587.332,36 | 10,75% |
| **ZORROA GUZTIRA** | **5.461.833,72** | **100,00%** |